

Benegasek dio ezkerren botoa «etxe handian, ez txikian», bildu behar dela

PSOEk Gipuzkoako lehen indarra eta Bizkaiko bigarrena izan nahi du

Botoa nori eman erabaki gabe daukatena eskuratuta, Espainiako hauteskunde orokorrak PSOEk irabaziko dituen konfiantzaz agertu zen Bilbon Jose Maria Benegas. Barne inkestak eta azken orduko laguntzak aipatuz, PP lau puntu gorago besterik ez dagoela esan zuen. EAeri dagokionez, PSOEk lehen postua nahi du Gipuzkoan, bigarrena Bizkaietan, eta «emaitza duina» Araban.

Iñaki Uriarte / Bilbo

BILBOKO irratiko kate batean PP, IU eta EAJko hautagaiekin izandako eztabaidan sumatu zuen oldarkortasuna adibide gisa erabiliz, Jose Maria Benegasek hitz gogorrez ezetsi zuen PPren balizko gehiengo berria. «Ez daukate konponbiderik, ez politika industrialik, ez dakite nola amaitu biolentzia, ezta terrorismoa ere», adierazi zuen Bizkaiko lehen hautagaiak, «Madriren PPko gobernu izanda Euskadira porrota» dela baietsi aurretik.

Benegasek, bestalde, PSOEn aldeko boto baliagarria emateko deia egin zuen. «Ezkerren boto baliagarriak ezkerren etxe handira joan behar du, eta ez etxe txikira», esanez Iuren botoemalteei Gonzalezen alde egiteko eskatu zien. Anguitaren alderdiak erabilitako leloa ere aipatu zuen PSOeko burukideak. «IUK ez du ezer erabakitzen, ez da egia, erabakitzen dutenak herritarak dira», ohartarazi zuen.

Azken egunotan PSOeko zen-



Jose Maria Benegas PSE-EEko buruzagiak Bizkaiko hautagaiekin egin zuen kanpainaren balantzea.

XOUSE SIMAL

bait burukideak aipatu izan duten bezala, Benegasek ere ustelkeriari egotzi zion bere alderdia hauteskundeak galtzeko zorian egona. Edozein modutan, arestira arte PSOeri babesa ukatu dioten hainbat herritarrek osterera ere botoa alderdi horri emango diotela iragarri zuen. Benegasen tesia da «Gonzalez en ezkerreko gobernu» nahiago dutela, Aznarrena baino. Estatuan % 4ko aldea besterik ez dutela adierazi zuen azkenean. Botoa erabaki gabe daukatenean artean gehienek PSOeri emango diotela sinestuta agertu zuen.

1993ko emaitzak berresteko

asmoa • Kanpaina aztertzeke ordua helduta, Jose Maria Benegas pozik agertu zuen PSOeko

militantziak, «adore handiz» arituz, «oso kanpaina ona» egin duelakoan. Bizkaiko lehen hautagaiak gutxietsi egin zituen hauteskunde sondaketek PSOeri ematen dizkieten datuak, beti ere alderdiak darabiltzan beste batzuekin alderatuz.

Horren arabera, baliteke bihar ere, 1993an gertatu bezala, iraulketa gertatzea, eta PSO nagusitzea Espainian. Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, Bizkaietan Benegasek berak zuzentzen duen zerrenda jeltzaleen atzetik eta PPren aurretik gertuko dela adierazi zuen. Beste herrialdeei dagokionez, «Gipuzkoan lehen indarra izatea eta Araban emaitza duina eskuratzea espero dugu», esan zuen PSE-EEko lehendakariak.

Nicolas Redondo, Arantza Mendizabal eta Ramon Rubial Kogresu eta Senaturako hautagaiek lagunduta egin zuen prentsa agerpenean, Benegasek botoen gorako joeraren adierazgarri iritzi zion Ibar Ezkerreko enpresariekin izandako bilerari. «Enpresa publikoetako ordezkariak ez ezik, enpresa txiki eta ertainek ere Ibar Ezkerreko sare industrial berregiteko PSOEk egin duen lanaren aitortpen garbia» izan dutela iritzi dio. Enpresa txiki eta ertainak enpresa publikoek behar dituzten lanak eginez bizi direla azaldu zuen.

Hauteskunde kanpainen zehar UGT eta CCOO sindikatu etako ordezkariekin izandako bileraren garrantzia azpimarratu zuen halaber. X

Jose Maria Gorordok barku gainean amaitu du hauteskunde kanpaina

Politikariei

bidalitako mezuak ez du erantzunik jaso

Erredakzioa / Bilbo

JOSE MARIA GORORDOK mitin ibiltariak, aste biko barraudiaz gain, egin ditu hauteskunde kanpaina honetako leitmotib. Jokabide horri eutsiz, atzo bertan ere ICV-EHEren amaiera ekitaldia Enparantzako Zirkularretik Areñakozubira aldatutako barkuan izan zen.

Bezperan, Bizkaia iratzartzeko erloju iratzargailuak banatu zituen. Atzo horietako batez baliatu omen zen, eta goiz jaiki zen, seiatarako Mercabilbaon saltzaille autonomoekin egoteko. Eguneko lehen mitin horren ostean, Bazariraino hurbildu zen eskuorriak banatzera.

Bestalde, duela aste batean, otsailaren 23an zehazki, teletik publiko eta arduradun politikoei igorritako ur botila hutsek ez dute erantzunik izan, Iñaki Zarragoiti bidalitakoa ez bada, paketea heldu bezala etorri baizitzaion bueltan. Donostiako Artzain Onaren katedralean gose greban direnek erabili duten sistemaz baliatuz, Gorordok mezu bana bidali zien botila barruan Jordi Garcia Candau RTVEko zuzendari nagusiari. Iñaki Zarragoiti EITBkoari, Javier Peon PPko hautagaia, Iñaki Anasagasti jeltzaleari eta Jose Maria Benegas eta Ramon Jauregi PSE-EEko burukideei. Bertan komunikabide publikoek Gorordoren zerrendari eman dioten informazio tratamendua gaitzesetzen zuten Bilbokoa zinegotziak. Alderdi horietako inork ez dio erantzunik eman. X

Mayor Orejak «ardura garrantzitsua» izango duela gobernuan dio Peonek

Datozen lau urteak «oso garrantzitsuak» izango direla adierazi zuen

Agentziak / Donostia

ESPAINIAKO hurrengo gobernuan Jaime Mayor Oreja EAeko PPko lehendakariak «ardura garrantzitsua» izango duela iragarri zuen atzo Javier Peon PPko Bizkaiko zerrendaburuak. Peonek ziurtatzen eman zuen gobernu PPkoa izango dela baina ez zuen aurreratu nahi izan zein kartera emango litzaikeen Jaime Mayor Orejari. Jose Maria Aznar azkeneko Bilbon izan zenean, «ardura» hori zein zen jakinarazi zuela adierazi zuen PPko hautagai bizkaitarrak.

Kanpainaren balantzea egin zanean, PSOEn «nahasmenak, ge-

zurak eta faltsukeriak» markatua egon dela adierazi zuen. Hau azaltzeko esan zuen, kanpaina honetan PSOeko inork ez dela mintzatu hauteskundeak aurreratzea eragin duen arrazoiak, hain zuzen ez direla ustelkeriaz aritu dio.

PPko hautagaiak adierazi zenez, «etengabeko ustelkerian, gezurrean eta tranpetan oinarritutako erregimen felipista-ri egun gutxi geratzen zaizkio, eta bai Espainiarrentzat bai Euskal Herriarentzat oso garrantzitsuak izango diren lau urteregi egingo die leku». PP «programa ona eta gobernatzen esperientzia» duela adierazi zuen Bizkaiko

zerrendaburuak, «ilusioa eta esperantza berreskuratzeko PPk irabaztea beharrezkoa» dela esan zuen.

Peonek CiU eta EAJren aurka hitzak ere izan zituen, «sozialistek PPren aurka duten ekin-tzetan parte hartu baitute».

Javier Peon herritarren nahien inguruan ere aritu zen, esanez, «herritarrek egonkortasuna eta konfiantza ziurtatuko dituen gobernu eskatzen» dutela. Izan ere, Peonentzat «hori beharrezkoa baita enplegua eta aberastasuna lortzeko». Bestetik, euskal hautesleei «beldurrik gabe, askatasunez eta arduraz» bozkatzeko eskatu zien. X



Peon eta Merino, Kongresurako PPko hautagaiak.

XOUSE SIMAL